

Soziolinguistika albistaria

36. zenbakia
2018ko maiatzak 4 - 17

Soziolinguistika Klusterraren albisteak

[Euskaltzaletasunaren aktibazioari buruzko BAT aldizkaria kalean \(107. zbk\)](#)

2018. urteko bigarren zenbakiak euskaltzaletasunaren aktibazioari lotutako artikuluak biltzen ditu. Azken urteotan euskararen inguruko hainbat ekimen sozial eta ikerketa jarri dira martxan aktibazioaren inguruan. BAT soziolinguistika aldizkariaren zenbaki honek hauek...

[Euskara biziberritzeko proiektuak Eleaniztasunari buruzko Nazioarteko I. Konferentzia Frisian](#)

Imanol Larrea eta Asier Basurtok parte hartu dute Soziolinguistika Klusterraren ordezkari gisa. Beste hizkuntza komunitateetan eta nazioarteko sareetan soziolinguistika arloan garatzen ari diren ikerketak ezagutu eta harremanak lantzeaz gain, azken urteetan Euskal He...

[2017ko Hausnartu sarien banaketa eta lanen aurkezpenak ikusgai](#)

2017ko Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarien banaketa-ekitaldia Baionako Iker Zentroaren egoitzan egin zen. Bertan, epaimahaiak saritutako lanen egileek beren sariak jaso zituzten ekimenaren babesleen eskutik eta bakoitzak bere lana aurkeztu zuen publikoki. Orain ...

[Soziolinguistika Klusterraren 2017ko memoria](#)

Ikerketak

[UEUk artizarra.eus plataforma berria sareratu du.](#)

Udako Euskal Unibertsitateak Artizarra.eus plataforma berria sareratu du. "Euskaldunen sare sozial tekniko-zientifiko-profesionala" izan nahi du Artizarrak, ikerlari eta profesionalen arteko harremanak erraztuz. Ezaguna denez sare sozialak harreman arinak kudeatzeko ...

[Galegozko hedabideen balio ekonomikoa Galiziako produkzio kulturalaren %4,7a da](#)

Hákan Casares, responsable do Observatorio da Cultura Galega, presentou unha serie de datos estatísticos de diversas fontes reunidos ex-profeso para este foro arredor da situación da Lingua galega e medios de comunicación dentro do programa da xornada Lingua, med...

["Ideologies lingüístiques a la premsa distribuïda a Catalunya" R. Urtasunen tesia](#)

Ideologies lingüístiques a la premsa distribuïda a Catalunya: anàlisi dels canvis, relacions i estratègies. Urtasun Gorriz, Rosa-América .

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

[Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak komunikazioa-inkomunikazioa landuko du 28. Biltzarrean](#)

Komunikazioa-inkomunikazioa gaiaren barruan gaixo psikotikoez, heriotzaz, sexuaz eta hizkuntzez arituko dira mahai-inguru eta tailerretan. Maiatzaren 18 eta 19an izango da Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak antolatutako biltzarra, Arantzazuko Gandiaga Topagunean.

[Kultur kontsumoaz jardunaldia: "Zenbat gara? Nondik jo?" maiatzaren 22an Andoainean](#)

Siadeco ikerketa elkarteak Elkar argitaletxearentzat egin duen ikerketa sakonak neurria jarri dio euskal kulturaren kontsumoari. Datu horiek zer dioten xeheago analizatzeko eta agertzen duen argazkiaren aurrean zer egin daitekeen aztertzeko hainbat aditu bilduko ditu...

[Ezkerraberi Fundazioak eta Euskaltzaindiak euskararen erabilera informala aztertzeko jardunaldi bat antolatu dute, Donostian](#)

Ekainaren 1ean izango da, Euskaltzaindiaren Luis Villasante Euskararen Ikergunean (Tolare baserria), goiz osoz (09:15 – 14:30). Parte-hartzaileak: Mikel Zalbide, Inma Muñoa, Orreaga Ibarra, Asisko Urmeneta, Adolfo Arejita, Joxerra Gartzia eta Xabier Euzkitze. Iñaki...

[Eleaniztasunari eta Hezkuntza Eleaniztunari buruzko Nazioarteko Konferentzia \(ICMME 2018\) maiatzaren 31tik ekainaren 2ra Kanadan](#)

Iaz Bragan (Portugal) egindakoaren ostean, ICMME Konferentziaren bigarren edizioa da egitekoa maiatzaren 31tik ekainaren 2ra.

["Towards Language Aware Citizenship" konferentzia Amsterdamen uztailaren 4tik 7ra](#)

"Hizkuntza-kontzeinetzia duen hiritargorantz" Konferentzia

["Gutxitutako hizkuntzak eta lurraldea" konferentzia abuztuaren 23tik 25era Islandian](#)

Proposamenak helarazteko epea maiatzaren 20an amaitzen da.

Liburuak eta argitalpenak¹

Jakin 225: Noranahiko izateko erronka. Euskara batuak 50 urte.

Gai nagusia sailean, euskara batuaren 50. urteurrenaren harira, haren ekarpenak eta egungo eta etorkizuneko erronkak aztertzen dituzte Lorea Agirre Dorronsoro, Joan Mari Torrealдай, Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Paulo Agirrebaltzategi, Irene Arrarats eta Pruden G...

Hizkuntza eta Inmigratioari buruzko Kataluniako Genralitatearen bibliografia (2015-2018)

Bibliografia selectiva. Centre de documentació de Política Lingüística

¹Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean **HABE Liburutegira** (liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Hamasei ohorezko euskaltzain berri izendatu ditu Euskaltzaindiak

Guztira, bost emakumezko eta hamaika gizonezko izendatu dira: bost bizkaitar, sei gipuzkoar, bi lapurtar eta baxenabartar, arabar eta nafar bana. Ohorezko euskaltzain berrien zerrenda: Jose Antonio Aduriz, Martxel Andrinua, Txaro Arteaga, Maria Jose Azurmendi, Miren J...

Hizkuntza Eskubideen Protokoloa: Euskal bertsioa ontzen ari dira 80 eragile

Protokoloaren Euskal Herriko Garapena (EHGarapena) deitu dio Kontseiluak hurrengo urratsari. EHGarapena tresnak euskararen eremuan lehentasunak adosteko balioko du. Erremintak hainbat sektoretan eragiteko asmoa du: administrazioan, hezkuntzan, eremu sozioekonomikoan,...



BABESLEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

BAZKIDE PARTAIDEA

